# GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

# CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduak 1**

**Vitoria-Gasteiz, 1 de diciembre de 2020**

Navarra, 2 – 01007 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 017 972 – e-mail: prentsa@ej-gv.es

## Gobernantza Publiko eta Autogobernua

# ADMINISTRAZIO OROKORRAREN LANGILEEN EGITURA EGUNERATUKODUEN KIDEGOEN ETA ESKALEN LEGE PROIEKTUA ONARTU DU GOBERNU KONTSEILUAK

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Euskadiko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako langileen egitura eguneratuko duen Kidegoen eta Eskalen Lege Proiektua. Legeak lanpostu bakoitzerako funtzioak eta titulazioak berrantolatzea ahalbidetuko du, eta Administrazioaren egungo talde eta azpitalde profesionalen kopurua sinplifikatuko du. Era berean, prozesuak malgutuko ditu lanpostu bakoitzaren betekizunak eguneratzeko eta aldatzeko, lanbide titulazioetan gertatzen diren aldaketen arabera.

Gai hori guztia arautzen du gaur egun indarren dagoen legeak, 2004an onartua izan zen. Aitzitik, errealitate berriak araudia egokitzea gomendatzen du, egungo arauan jasotako taldeak eta azpitaldeak eguneratzeko, sortutako titulazio berrietara egokitu daitezen eta hobeto erantzun diezaieten Administrazio moderno batek eskatzen dituen titulazio eta profil profesionalei. Horrek giza baliabideen antolaketa hobetzea ekarriko luke eta, aldi berean, herritarren beharrei erantzun egokia ematea ahalbidetuko luke. Halaber, aurrerapen kualitatiboa izango litzateke langileen hautaketaren arrazionalizazioaren ikuspegitik, unean uneko antolaketa-beharrekin bat etorriko litzatekeelako.

Lege honek, etorkizunari begira, egungo talde eta azpitaldeen kopurua sinplifikatu nahi du. Horrela, bi kidego profesional aurreikusten ditu eta, bien barruan, 54 eskala sartuko dira:

- Kidego orokorra: administrazio-jarduerari lotutako eginkizunak betetzen dutenak hartuko ditu barnean. Kidego horrek lau eskala profesional izango ditu: administrazioko goi mailako eskala, administrazio kudeaketakoa, administraziokoa eta administrazio-laguntzakoa
- Kidego berezia: lanbide bati edo lanpostujakin batzuei buruzko ezagutza espezifikoa eskatzen duten eginkizunak betetzen dituena. Kidego honek 50 eskala profesional bereiziko ditu, hala nola, farmacia, meatzeak, haziak, juridikoa, kartografikoa, medikuntza, hirigintza...

Lege proiektuak bi xedapen gehigarri ditu eta horiei esker lan-eskaintza publikoetan sartzeko txanda bereziak sortu ahal izango dira, deitutako plazen kidego eta eskaletan gutxienez zortzi urteko antzinatasuna egiaztatzen duten bitarteko langileentzat. Bitarteko langileak plantillaren %40 baino gehiago direnean gaituko da kanal hori. Prozesuak proba praktiko bakarra izango du, deialdi bakoitzeko lanpostuetako ohiko prozedurekin, zereginekin eta eginkizunekin lotuta. Lehiaketa-oposizioen barruko kanporaketa-proba izango da.

Praktikan, enplegua finkatzeko bide bat izango da, gaur egun bitarteko langileek betetzen dituzten eta gure administrazioan balio handiko esperientzia eta ezagutza ematen duten lanpostuetan. Arau honek beharrezko estaldura emango dio prozesu honi berme juridikoarekin aurre egiteko, beti ere Funtzio Publikoan zuzendu behar diren berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak errespetatuz.

**Gobernantza Publiko eta Autogobernua**

## EUSKO JAURLARITZAK BANDA ZABALA EUSKADIKO LANDA-EREMUETARA ZABALTZEKO AZKEN ZATIARI EKINGO DIO

- **Lakuak 3 milioi euro gehiago inbertituko ditu Interneten sartzeko azpiegiturarik ez duten 149 herriguneetara iristeko**

- **Eremu zuriko 4.710 etxebizitzari konektagarritasuna emango die, eta hala, arrakala digitala arinduko du eta lurraldeko desoreka murriztuko du**

Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuetan Interneterako sarbiderik ez izateagatik dagoen lurraldeko eten digitalak bereak egin du. Eusko Jaurlaritzak, Informazioaren eta Telekomunikazioen Zuzendaritzaren bidez, beste hiru milioi euro inbertituko ditu banda zabala Euskadiko landa-guneetara eta biztanle gutxien dituzten eremuetara zabaltzeko. 149 herrigune inguru zuntz optikoaren sarera konektaturik geratuko dira eta, horri esker, orain arte konektagarritasunik ez zuten 4.710 baserri eta etxebizitza lotuta geratuko dira. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak laguntzak eskainiko ditu telekomunikazioen operadoreak banda zabaleko sarea ‘eremu zuri’ horietara zabal dezaten bultzatzeko.

Eusko Jaurlaritzak onartutako deialdi berriak diru-laguntzak emango dizkie operadoreei biztanle gutxiagoko eremuetara zuntz optikoa eraman dezaten. Askotan, landagune isolatu horietan ez dago telekomunikazio azpiegiturarik, eta operadoreak ez dira horietara iritsi ez dutelako inbertsio errentagarririk ikusten. Informazioaren eta Telekomunikazioen Zuzendaritzak garatu du proiektua eta hiru milioi horiek 2021etik 2023ra bitartean banatuko dira. Beraz, bi urtean ia Euskadi osoa (ez bakarrik herri handi eta ertainak, baita Euskadi landatarra ere) banda zabaleko sarera konektatuta egongo da.

Eusko Jaurlaritzak Interneteko konexio azkarra eta segurua deialdi publiko batean ezartzea espero du eta, behin lehiaketa publikoa ebatzita, gune horietara banda zabalaren hedapena 24 hilabetetan egingo da.

Jarduera horren onuradun izango diren eremu gehienak Arabakoak dira, 92 guztira, eta ondoren Bizkaikoak (50) eta Gipuzkoakoak (7). Arabako eta Bizkaiko lurraldeetan nukleo batzuk aurreko deialdietan jasota egon ziren, baina, hainbat arrazoi tarteko, operadoreek ez zuten pizgarririk aurkitu. (Ezin izan zuten zuntza jarri baimenik ez zutelako izan jabe partikularren edo beste enpresa batzuren baimenik eta beraien lurretatik pasatzea ukatzen zutelako).

Olatz Garamendi Gobernantza Publiko eta Autogobernu sailburuak aurkeztu du diru-laguntzen deialdia Gobernu Kontseiluaren ondoko agerraldian. Eusko Jaurlaritzak pertsona eta enpresa guztientzat %100eko konektibitatea lortzeko egin duen ahalegina goraipatu du sailburuak, eta banda zabala landa-

eremuetara zabaltzeko egin den inbertsioa azpimarratu du, guztira, lau deialdietan, 10.197.773 euro.
Garamendik gogorarazi duenez, zuntz optikoa duten 149 landa-eremu horiei aurreko hiru deialdietan iritsitako ia bostehun landa-eremuak gehitu zaizkie, eta, horrela, Euskadiko landa-mapa guztia bete da.

Covid-aren pandemiaren ondoriozko osasun-krisiak agerian utzi du gizarte konektatu baten garrantzia eta banda zabaleko sareetarako sarbidea oso baliagarria izan da herritarrentzat eta administrazioarentzat pandemiaren kudeaketan. Baita dagoeneko banda zabala duten landa-herrietan ere. Horri esker, etxetik telelana egin eta nolabaiteko lan-jarduera garatu ahal izan dute banda zabalari esker; konfinamenduan ikasleek etxetik eskola birtualak jaso ahal izan zituzten; ERTEak online izapidetu ahal izan dituzte; familiei eta enpresei laguntzak emateko prozesua errazagoa izan da edota online erosteko ere etxetik irten beharrik gabe.

Eusko Jaurlaritzaren asmo handiko proiektu estrategiko hau 2016an onartutako Euskadi 2020 Agenda Digitalaren barruan kokatzen da. Jaurlaritzak apustu garbia egin du edozein biztanle-gunetan bizi diren pertsonen eta enpresen konektibitatea hobetzearen alde, edozein dela ere haien biztanle kopurua eta tamaina.

Halaber, ekimen honi esker, Euskadik Europa 2020ko Agenda Digitalean ezarritako helburuak bete ahal izango ditu. Programa horrek belaunaldi berriko banda zabala herritar guztiei unibertsalizatzea du xede.

Euskadi Espainiako Estatuko buru da banda zabal ultralasterreko estaldura duten etxeen portzentaian. Beste herrialde batzuekiko konparazioan ere oso ondo kokatuta gaude, izan ere Suedian, Finlandian eta Danimarkan, esaterako, estaldura hori duten familien %90 baino gehiago dira.

**Hezkuntza**

**6 MILIOI EURO UDALENTZAKO LAGUNTZATAN, IKASTETXEETAN HOBEKUNTZAK EGITEKO "UDALAGUNTZA 2020" DEIALDIAREN BIDEZ**

- **Udalaguntza deialdiaren bidez 304 obra finantzatu ziren iaz, udal titulartasuneko eraikinetan kokaturik dauden 65 ikastetxetan**

- **Aurtengo deialdiak berrikuntza dakar: %90ean finantzatuko dira udalek Covid-19 dela-eta eskola-esparruetan jarritako karpak**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Udalaguntza-2020 izenez ezagutzen den dirulaguntza deialdia. Deialdi honen bidez, Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxeak dauden udal-jabetzako higiezinetan obrak gauzatzeko eta karpak hornitzeko eta instalatzeko gastuak finantzatzeko dirulaguntzak ematen dira. Deialdi honek 6 milioi euroko diru-kopurua du.

Udalaguntza-2020 deialdian parte hartu ahal izango dute aurrerago aipaturiko ezaugarriak betetzen dituzten ikastetxeak kokaturik dauden eraikinen titular izan eta haietan hobekuntza lanak egiteko proiektuak aurkezten dituzten Euskadiko udalek. Kasurik gehienetan, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak izan ohi dira. Agindu honen bidez finantzatu daitezkeen obrek 2020ko urtarrilaren 1 eta 2021ko abuztuaren 31 bitartean hasi beharko dute eta 2021ko abenduaren 31 baino lehenago bukatuak egon beharko.

Hezkuntza Sailak deialdi honen bidez emango duen dirulaguntza Balorazio Batzordeak onarturiko aurrekontuaren %60koa izango da. Gainerako %40 proiektua aurkeztu duen udalaren gain izango da. Eskaera bakoitzeko gehienezko kopurua, dena den, 360.000 eurokoa izango da. Hortaz, Balorazio Batzordeak onartutako 600.000 euro baino gehiagoko aurrekontuak dituzten eskaerei dirulaguntza ematen bazaie, muga hori kontuan hartuta egingo da.

**Karpak eskola-esparruan**

Aurtengo deialdiaren berritasun nagusia da, bizi dugun pandemia egoeraren eraginez, karpak hornitzeko eta instalatzeko gastuak ere finantzatuko direla, baldin eta Covid-19ren ondoriozko beharretan justifikatutakoak badira, karpa jabetzan zein alokairuan hartua izan. Hala ere, deialdian sartutako kostua ikastetxeak Covid-19 dela-eta erabili behar duen denborari lotutakoa izango da.

Agindu honen ondorioetarako, finantzatu daitezkeen karpak hornitu eta instalatzea da eskola-esparruan kokatutako patioetan edo beste espazio libre batzuetan egiten den COVID-19 pandemiaren ondoriozko beharretan

justifikatutakoak, karpa jabetzan edo alokairuan jartzea eta erostea barne. Karpa patioetan edo eskola-esparruko espazio libreetan instalatu beharko da. Kasu horretan, Hezkuntza Sailaren dirulaguntzak Balorazio Batzordeak onartutako aurrekontuaren %90 finantzatuko du, Udalaguntzaren bidez finantzatutako gainerako jarduerετan ohikoa den % 60aren ordez.

**Instalazioak egokitzea**

Karpen instalazioaz harago, ikastetxeen irisgarritasuna hobetzeko lanak izan ohi dira sarritan deialdi honen bidez diruz laguntzen direnak, edo baita eraikin horien instalazioak eguneratu edo egokitzeko lanak ere, hala nola: kanpo nahiz barne arotzeria aldatzea; fatxada eraberritzea; patio eta jolastokietan zorua berritzea; eraginkortasun energetikoa hobetzeko jarduketak; espazioak birbanatzea; teilatu-konponketak; instalazio elektrikoak eguneratzea; komunak eta saneamenduak konpontzea; edo berogailu sistema aldatzea, beste hamaika motatako lanekin batera. Guztiak ere irakaskuntzaren kalitatean modu zuzen zuzenean eragiten duten jarduerak izan ohi dira. Nola nahi, ez dira deialdi honen bidez finantzatuko lehen ezarpeneko lanak, ezta kontserbazioko eta mantentze obrak ere.

Udalaguntza deialdiaren sorrera, ikastetxeen instalazioetan hobekuntza eta eguneratze lanak burutzeko Hezkuntza Sailaren eta tokiko erakundeen arteko koordinazioan aurkitzen da. Elkarlan horri esker, gainera, baliabide publikoen optimizazioa eta administrazio bakoitzak egiten dituen ahalegin eta jarduketen eraginkortasun handiagoa ere lortzen dira.

2020ko Udalaguntza deialdian parte hartu nahi duten udalek hilabeteko epea izango dute proiektuak aurkezteko –eskatzen den dokumentazioarekin batera-, deialdia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean hasita.

Iazko Udalaguntza deialdiaren bidez (Udalaguntza 2019) 304 obra finantzatu zituen Hezkuntza Sailak, Euskadiko 95 udalerritan kokaturiko Haur eta Lehen Hezkuntzako 165 ikastetxe publikotan.

**Hezkuntza**

## ATZERRIKO HIZKUNTZA INDARTZEKO LAGUNTZAK, LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOETAN

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du Agindu bat, heziketa zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxeetan 2020-2021 ikasturtean zehar atzerriko hizkuntza indartzeko laguntzak deitzen dituena.

80.000 euroko diru-kopurua duen deialdi honek laguntzak ematen ditu Lanbide Heziketako zikloetako ikasleei atzerriko hizkuntzak irakasteko, ikastetxean bertan eta eskola-orduetatik kanpo antolaturiko saioetan. Ikastaro horiek gutxienez 60 eta gehienez 100 orduko iraupena izan beharko dute, eta ikastetxeko irakasleek eurek eman beharko dituzte. Deialdi honen bidez lagundu ahal izateko, hizkuntza bakoitzeko taldean gutxienez 8 ikasle egongo dira, eta gehienez 20.

Mintzamenaren komunikazio-gaitasuna landuko da bereziki ikastaro horietan ikasleekin, solasaldietan eta ahozko azalpenetan ahalegina jarriz. Goi Mailako zein Erdi Mailako heziketa zikloetako ikasleek parte hartu ahal izango dute ikastaro horietan, ikastaroa antolatu duen ikastetxeetan matrikulatutako ikasleek.

**Kultura eta Hizkuntza Politika**

## EUSKO JAURLARITZAK 100.000 EUROKO DIRU LAGUNTZA ONARTU DU GEREDIAGA ELKARTEAREN "ZU NON, HAN DA!" PROGRAMA BULTZATZEKO

Gobernu Kontseiluak 100.000 euroko diru-laguntza onartu du gaur, Durangoko Azokaren inguruan zuzeneko jardueren ezohiko plan bat finantzatzeko, Covid-19ak sortutako krisiaren ondorioak arintzeko.

Osasun egoera dela eta, aurten Durangoko Azoka, batez ere, online egingo da, baina Gerediaga Elkarteak "Zu non, han DA!" proiektua antolatu du. Helburua Azoka eta euskal kultura ahalik eta biztanle gehienengana hurbiltzea da, osasun krisiak eragindako edukiera eta mugikortasun murrizketak kontuan hartuta. Gaur onartutako laguntza zuzenean jarduera plan hau finantzatzeko erabiliko da.

"Zu non, han da!" egitasmoaren barruan Durangoko Azokak hainbat kontzertu antolatu ditu zortzi herritan abenduaren 5etik 8ra, eta herri bakoitzak bi eguneko programazioa izango du. Guztira 32 taldek parte hartuko dute. Behin Azoka bukatuta, abenduaren 9tik aurrera eta urtarrilaren 8ra arte, "Zu non, han DA!" ekimen honen baitan, hainbat liburudendatan Azokako produktuak egongo dira salgai, modu presentzialean.

## EUSKO JAURLARITZAK 50.000 EURO BIDERATUKO DITU ERESBIL FUNDAZIOAK EUSKAL MUSIKA-EUSKARRIEN KARATULAK KATALOGATU ETA DIGITALIZATZEKO

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du "Eresbil-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioari diru-laguntza zuzena ematea, katalogazioa, digitalizazioa, azterketa historiko artistikoa eta egile-eskubideen kudeaketa finantzatzeko, etorkizunean euskal musika-euskarrien karatulak jendaurrean jartzeko".

Helburua euskal musika euskarrien karpeten lan plastikoei balioa ematea da. Gaur onartutako akordioaren arabera, 50.000 euroko diru-laguntza emango zaio Fundación Eresbil-Archivo Vasco de la Música/ERESBIL Musikaren Euskal Artxiboari, honako hiru zeregin hauek egiteko:

1. Karatulako jabetza intelektualeko ustiapen-eskubideen baimena kudeatzea, jendaurrean zabaltzeko.
2. Azal horiek katalogatu eta aztertu.
3. Azalak digitalizatu.

2020. urtea amaitu baino lehen baimenen kudeaketa eta azalen katalogazioa eginda egotea aurreikusi da. Digitalizatze-lanak 2021ean egingo dira.

**Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa**

**TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILAK 800.000 EURO BIDERATUKO DITU "EUSKAL RETAIL PRESTAKUNTZA" PROGRAMA GARATZEKO**

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak, Euskal Autonomia Erkidegoko txikizkako merkataritzaren erronka nagusiak ezagututa, "Euskal Retail Prestakuntza" programarekin aurrera jarraituko du. Hala, Eusko Ganberei dirulaguntza izendunak emango dizkie prestakuntza-programaren jarduerak garatzeko.

Eusko Ganberekin izenpetutako lankidetza-hitzarmenaren helburua da txikizkako merkataritza profesionalizatzeko "Euskal Retail Prestakuntza" programa garatzea eta exekutatzea, negozio-eredu lehiakorrago baterantz sektorea eraldatzen lagunduko duten tresnak eta ezagutzak emanez.

800.000 euroko dirulaguntza honako modu honetan banatuko dute:

BILBOKO MERKATARITZA-GANBERA…………..400.000 €
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA……………………… 264.000 €
ARABAKO GANBERA……………………………… 136.000 €

## Gobernanza Pública y Autogobierno

# EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA EL PROYECTO DE LEY DE CUERPOS Y ESCALAS QUE ACTUALIZARÁ LA ESTRUCTURA DEL PERSONAL DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el Proyecto de Ley de Cuerpos y Escalas que actualizará la estructura del personal de la Administración General de Euskadi y sus organismos autónomos. La ley permitirá reordenar las funciones y titulaciones para cada puesto de trabajo y simplificará el número de grupos y subgrupos profesionales de la Administración. Asimismo, flexibilizará los procesos para actualizar y modificar los requisitos de cada puesto en función de los cambios que se produzcan en las titulaciones profesionales.

Toda esta materia está regulada por la ley actual que data de 2004. La nueva realidad recomienda una adecuación normativa para actualizar los grupos y subgrupos recogidos en la norma actual, de forma que se adecúen a las nuevas titulaciones creadas y respondan mejor a las titulaciones y perfiles profesionales que requiere una Administración moderna. Esto redundaría en una mejora en la organización de los recursos humanos lo que, a su vez, permitiría una respuesta adecuada a las necesidades de la ciudadanía. Supondría, además, un avance en la racionalización de la selección del personal, en coherencia con las necesidades organizativas de cada momento.

La futura ley busca simplificar el actual número de grupos y subgrupos, de modo que habrá 2 cuerpos profesionales y, dentro de ambos, se incluirán 54 escalas:

- **El Cuerpo general**: que integrará a quienes realizan funciones vinculadas a la actividad administrativa. Este cuerpo tendrá **4 escalas** profesionales: superior de la Administración, de gestión administrativa, administrativa y auxiliar administrativa.
- **El Cuerpo especial**: integrará a quienes realizan funciones que requieren un conocimiento específico propio de una profesión o de puestos determinados. Este cuerpo distinguirá **50 escalas** profesionales, como, por ejemplo, farmacia, minas, jurídica, cartográfica, medicina, urbanismo, etc.

El proyecto de ley contiene dos disposiciones adicionales que posibilitarán la creación de turnos especiales de acceso en las OPE para los trabajadores interinos que acrediten un mínimo de ocho años de antigüedad en los cuerpos y escalas a los que pertenezcan las plazas convocadas. Este canal se habilitará en los casos en los que la interinidad supere un 40% de la plantilla. El proceso constará de una única prueba, *de carácter práctico, relacionada con los procedimientos y funciones habituales de los puestos de cada convocatoria. Será* una prueba eliminatoria dentro de los concursos-oposición.

En la práctica será una vía para consolidar empleo en puestos que actualmente están cubiertos por personal interino y que aportan una experiencia y conocimiento de gran valor para nuestra Administración. Esta norma ofrecerá la cobertura necesaria para afrontar este proceso con garantía jurídica y respetando los principios de igualdad, mérito y capacidad que deben regir siempre en la Función Pública.

**Gobernanza Pública y Autogobierno**

## EL GOBIERNO VASCO ABORDA EL ÚLTIMO TRAMO DE LA EXTENSIÓN DE LA BANDA ANCHA A LAS ZONAS RURALES DE EUSKADI

- **Lakua invertirá 3 millones de euros para llegar a 149 núcleos poblacionales que carecen de infraestructuras que permitan el acceso a Internet**
- **Permitirá la conectividad a 4.710 viviendas de ‘zonas blancas’, con lo que mitigará la brecha digital y paliará el desequilibrio territorial digital**

La brecha digital territorial por no tener acceso a Internet en las zonas rurales de Euskadi tiene sus días contados. El Gobierno Vasco, a través de la Dirección de Tecnologías de la Comunicación y la Información, invertirá otros 3 millones de euros en el programa para extender la banda ancha a las zonas rurales y menos pobladas de Euskadi. Alrededor de 149 núcleos poblacionales quedarán conectados a la red de fibra óptica de nueva generación, de lo que se podrán beneficiar 4.710 viviendas y caseríos que hasta ahora carecían de conectividad. El departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno ofrecerá ayudas para incentivar a los operadores de telecomunicaciones a que extiendan la red de banda ancha a esas ‘zonas blancas’.

La nueva convocatoria aprobada por el Gobierno Vasco ofrecerá a los operadores subvenciones para que lleven fibra óptica a estas zonas menos pobladas huérfanas de banda ancha, en muchos casos núcleos aislados en los que no existen infraestructuras de telecomunicaciones, y a los que los operadores no han llegado porque carecen de atractivo inversor. El proyecto cuenta con un presupuesto de tres millones de euros que se repartirán entre 2021 y marzo de 2023, de modo que en dos años prácticamente toda Euskadi (no solo las grandes y medianas poblaciones y los polígonos, también la Euskadi rural) estará conectada a la red de banda ancha. Solo quedarán por engancharse un puñado de casas aisladas, ubicadas en lugares remotos, a los que se tratará de llegar con futuras actuaciones.

El Gobierno Vasco espera implantar la conexión a Internet rápida y segura en una convocatoria pública y una vez resuelto el concurso público el despliegue de la banda ancha se desarrollará en 24 meses.

La mayoría de las zonas que se verán beneficiadas con esta actuación son de Araba (un total de 92), seguido de Bizkaia (50) y Gipuzkoa (7). En los territorios alavés y vizcaino algunos núcleos estuvieron contemplados en convocatorias anteriores pero los operadores de telecomunicaciones no mostraron interés por falta de rentabilidad económica y complejidad técnica para los despliegues.

La convocatoria de ayudas ha sido presentada por la consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, Olatz Garamendi, en la comparecencia posterior al Consejo de Gobierno celebrada hoy en Gasteiz. Garamendi ha destacado el esfuerzo del Ejecutivo vasco en lograr el 100% de conectividad para todas las personas y empresas vascas, independientemente de su condición y su lugar de residencia. Asimismo ha remarcado la inversión total realizada para la extensión de la banda ancha a las zonas rurales, cifrada en 10.197.773 euros. Esto se traduce en un impacto real de 37.231 hogares de núcleos rurales que disponen ya de banda ancha.

Garamendi ha recordado que a estas 149 zonas rurales a las que se extenderá la banda ancha se añaden los casi quinientos a los que ya se ha llegado en las tres convocatorias anteriores. La crisis sanitaria derivada de la pandemia de la covid-19 ha puesto de relieve la importancia de una sociedad conectada y el acceso a las redes de banda ancha ha sido de gran utilidad para la ciudadanía y la administración en la gestión de la pandemia. También para las poblaciones rurales que cuentan ya con banda ancha ya que, gracias a ella, han podido realizar teletrabajo desde casa y desarrollar cierta actividad laboral, a los alumnos recibir clases virtuales desde casa, tramitar los ERTE online, facilitar ayudas a las familias y empresas, o comprar online sin necesidad de salir de casa.

Este ambicioso y estratégico proyecto del Gobierno Vasco se enmarca en la Agenda Digital Euskadi 2020, aprobada en 2016. Es una apuesta clara por la mejora de la conectividad de las personas que residen y las empresas que se ubican en cualquier núcleo de población, independientemente de cuál sea su número de habitantes y dimensión. Asimismo, este programa permite que Euskadi cumpla con los objetivos de la Agenda Digital de Europa 2020, que establece la universalización de la banda ancha a la totalidad de la población.

Euskadi se encuentra entre los puestos de cabeza del Estado español en porcentaje de hogares con cobertura de banda ancha ultrarrápida. También sale bien parada en la comparativa con otros países, ya que se encuentra junto a los países líderes en este campo como son Suecia, Finlandia y Dinamarca, que son los que superan el 90% de los hogares con esta cobertura.

**Educación**

## 6 MILLONES DE EUROS EN SUBVENCIONES A LOS AYUNTAMIENTOS PARA MEJORAS EN CENTROS EDUCATIVOS DE TITULARIDAD MUNICIPAL, A TRAVÉS DE LA CONVOCATORIA "UDALAGUNTZA 2020"

- **La convocatoria Udalaguntza subvencionó el pasado año 304 obras a realizar en 165 centros educativos ubicados en edificios de titularidad municipal**

- **La nueva convocatoria incluye como novedad la financiación, al 90%, de las carpas instaladas por los ayuntamientos en los recintos escolares con motivo de la Covid-19**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, la Orden por la que se convocan ayudas a la financiación de los gastos de ejecución de obras y suministro e instalación de carpas en inmuebles de propiedad municipal en los que funcionan centros docentes dependientes del Departamento de Educación. Esta convocatoria, conocida con el nombre Udalaguntza-2020, cuenta con un importe global de 6.000.000 de euros.

Podrán acogerse a la convocatoria Udalaguntza-2020 aquellos ayuntamientos de Euskadi que presenten sus proyectos de obras de mejora en centros docentes de las características anteriormente citadas. Se trata, fundamentalmente, de centros públicos de Educación Infantil y Primaria. Las obras susceptibles de ser financiadas a través de esta convocatoria habrán de iniciarse entre el 1 de enero de 2020 y el 31 de agosto de 2021 y deberán estar finalizadas antes del 31 de diciembre de 2021.

La subvención del Departamento de Educación cubrirá el 60% del presupuesto de aquellas obras aprobadas por la comisión de valoración, con un importe máximo no superior a 360.000 euros por cada solicitud. El 40% restante lo asume el ayuntamiento que presenta el proyecto. Por tanto, a aquellas solicitudes cuyo presupuesto aprobado por la comisión de valoración sea superior a 600.000 euros, se les reconocerá la ayuda teniendo en cuenta esa limitación.

### Carpas en el recinto escolar

Como principal novedad, y motivado por la situación de pandemia que estamos viviendo, la convocatoria Udalaguntza-2020 financia también el suministro e instalación de carpas, siempre que sean justificadas en las necesidades derivadas por la Covid-19, sean éstas adquiridas en propiedad o en arrendamiento. No obstante, el coste incluido en la convocatoria se limitará al vinculado al tiempo en que sea necesaria su utilización por el centro escolar con

motivo de la Covid-19. La carpa deberá ser instalada en patios o en espacios libres del recinto escolar. En este caso, la subvención del Departamento de Educación cubrirá el 90% del presupuesto aprobado por la Comisión de Valoración, en lugar del 60% habitual en el resto de actuaciones financiadas a través de Udalaguntza.

**Actualización de instalaciones**

Al margen de la instalación de carpas, la convocatoria Udalaguntza se ocupa de la financiación de obras de mejora de la accesibilidad a los edificios educativos, o incluso de actualización y adecuación de sus instalaciones. Obras como: sustituciones de la carpintería interior o exterior; reformas de fachada; pavimentación de patios y zonas de recreo; actuaciones para la mejora de la eficiencia energética; redistribución de espacios; renovación de cubiertas; actualización de instalaciones eléctricas; reparación de aseos y saneamientos; o reforma de la instalación de calefacción, entre muchas otras actuaciones, que contribuyen de manera muy directa a la mejora de la calidad de la enseñanza. No se consideran financiables dentro de esta convocatoria las obras de primer establecimiento, conservación y mantenimiento del edificio.

La convocatoria Udalaguntza nace de la coordinación entre el Departamento de Educación del Gobierno Vasco y las corporaciones locales en las actuaciones de mejora y actualización de las instalaciones educativas de titularidad municipal. Esta cooperación permite, además, la optimización de los recursos públicos y la rentabilización al máximo de los esfuerzos y actuaciones realizadas por cada administración.

Los ayuntamientos de Euskadi que deseen acogerse a esta convocatoria tendrán un plazo de un mes para presentar sus proyectos, junto con la documentación requerida, a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el BOPV.

La convocatoria Udalaguntza del pasado año (Udalaguntza 2019) subvencionó un total de 304 obras a realizar en 165 centros públicos de Infantil y Primaria, ubicados en 95 municipios de Euskadi.

**Educación**

## AYUDAS PARA REFUERZO EN LENGUA EXTRANJERA EN CICLOS FORMATIVOS DE FP

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, la Orden por la que se convocan subvenciones para realizar cursos de refuerzo en lengua extranjera en centros privados concertados que imparten ciclos formativos de Formación Profesional, durante el curso 2020-2021.

Con un importe global de 80.000 euros, esta convocatoria subvenciona la impartición de cursos de lengua extranjera al alumnado de ciclos de Formación Profesional, que se realicen en el propio centro, y fuera del horario lectivo. Estos cursos deberán tener una duración mínima de 60 horas y máxima de 100. Deberán ser impartidos, además, por el profesorado del propio centro. Para configurar un grupo subvencionable a través de esta convocatoria, será necesario un mínimo de 8 alumnos/alumnas y un máximo de 20, por cada idioma. Estos cursos se destinarán especialmente a trabajar la competencia comunicativa de las destrezas orales del alumnado, fomentando la práctica conversacional y las exposiciones orales. Podrán participar en ellos los alumnos y alumnas, tanto de ciclos de Grado Medio como de Grado Superior, matriculados en los centros concertados organizadores de los cursos.

**Cultura y Política Lingüística**

## EL GOBIERNO VASCO APRUEBA UNA AYUDA DE 100.000 EUROS PARA IMPULSAR EL PROGRAMA “ZU NON, HAN DA!” DE GEREDIAGA ELKARTEA

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy una subvención de 100.000 euros para financiar la realización de un plan extraordinario de actividades en vivo alrededor de la Durangoko Azoka para paliar los efectos de crisis creada por la Covid-19.

Debido a la situación sanitaria este año la Durangoko Azoka se realizará, principalmente, online pero Gerediaga Elkartea ha organizado el proyecto “Zu non, han DA!” que, teniendo en cuenta las restricciones de aforo y movilidad provocadas por la crisis sanitaria, tiene como objetivo acercar la Azoka y la cultura vasca al máximo de población posible. La ayuda aprobada hoy se destinará directamente a financiar este plan de actuaciones.

Dentro del proyecto “Zu non, han DA!” Durangoko Azoka ha organizado diferentes conciertos en ocho localidades del 5 al 8 de diciembre, y cada localidad contará con una programación de dos días. Participarán un total de 32 bandas. Una vez finalizada la Azoka, a partir del 9 de diciembre y hasta el 8 de enero, dentro de esta iniciativa "Zu non, han DA!", varias librerías pondrán a la venta sus productos de forma presencial.

**Cultura y Política Lingüística**

# EL GOBIERNO VASCO DESTINARÁ 50.000 EUROS PARA QUE LA FUNDACIÓN ERESBIL CATALOGUE Y DIGITALICE CARÁTULAS DE SOPORTES MUSICALES VASCOS

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el acuerdo relativo a la "concesión de una subvención directa a la Fundación ERESBIL-Archivo Vasco de la Música, para financiar la catalogación, digitalización, análisis histórico artístico, y gestión de los derechos de autor para la futura comunicación pública y puesta a disposición de las carátulas de soportes musicales vascos".

El objetivo es poner en valor los trabajos plásticos de las carpetas de los soportes musicales vascos. Según el acuerdo aprobado hoy se concederá una subvención de 50.000 euros a la Fundación Eresbil-Archivo Vasco de la Música/Eresbil Musikaren Euskal Artxiboa para la realización de las siguientes tres tareas:

1. Gestionar la autorización de los derechos de explotación de propiedad intelectual de la carátula para su difusión pública.
2. Catalogar y analizar dichas portadas.
3. Digitalizar las carátulas.

Está previsto que antes de que finalice este 2020 estén realizadas la gestión de las autorizaciones y la catalogación de las portadas. Las labores de digitalización se realizarán durante el 2021.

**Turismo, Comercio y Consumo**

**EL DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO DESTINA 800.000 € AL DESARROLLO DEL PROGRAMA DE "FORMACIÓN VASCA DE RETAIL"**

El Departamento de Turismo, Comercio y Consumo, consciente de los grandes retos a los que se enfrenta el comercio minorista de Euskadi, va a continuar con el programa de "Formación Vasca de Retail" a través de una subvención nominativa a las Cámaras de Comercio Vascas- Eusko Ganberak para el desarrollo de las actividades del programa formativo.

El objeto del Convenio de Colaboración suscrito con las Cámaras de Comercio de Euskadi es el desarrollo y ejecución del programa de "Formación Vasca de Retail" para la profesionalización del comercio minorista, dirigido a dotar de herramientas y conocimientos que ayuden a afrontar con éxito la transformación del sector hacia un modelo más competitivo de negocio.

El importe de la subvención asciende a 800.000 euros y se distribuye del siguiente modo:

CAMARA DE COMERCIO DE BILBAO …………..400.000 €
CAMARA DE COMERCIO DE GIPUZKOA ………264.000 €
CAMARA DE COMERCIO DE ALAVA …………...136.000 €